

Mikel Asurmendi

Elkarri-ko kidea

Ikasturte berriaren atarian

■ Elkarri, elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizonte mugimendua, laugarren ikasturteari ekiteko zorian dago. 1992ko amaiera aldean sortua, une eskoiatu berrien antzo pasatu ditu ama-eskolako burtoak: pozik batzutan eta aldaroka bestetan.

Aurten, berriz, gutxieneko heldutasun maila iritsita, Elkarri urrats sendoak emateko prest dago euskal gizartegintzan. Elkarri azken urteotan burutu ikaskuntzak, eta bereziki joan den burtoan ateratako notek, euskal politikagintzan eragile baitzepadakoa dela frogatzen dute.

Euskal politikagintzako ikasturteek berezitasun bat erakutsi dute azken urteotan, eta da: berean ikasle gisa ari diren alderdi politikoei, ekainera iritsita, porrot egiten dutela urteak joan urteak etorri. Aurten ere, euskal gizarte ikasturte politiko normalizatuago bat ekartzearren udaldian eginko —udako ikastaroak— saioek jaso duten porrota gogoratzea besterik ez dago.

Urteik urtera euskal politikagintzan jasotzen diren porrotak ikusita, Elkarri ikasle eragilea, ikasle izatetik irakasle izatera pasatzeko komplementzia zabaltzen hasi da ezker-eskuin. Hau da, gizarte mugimendua izatetik alderdi politikoa izatera pasatzeko garaia eta beharra aldarrikatzen hasia da berriz ere.

Elkarri-ren hiru egiteko nagusiak

Testuinguru honetan, eta Elkarriko tailer bateko kidea naizen aldetik, Elkarriren egitekoa apur bat zehaztea nahi nuke. Elkarriren hiru egiteko nagusiak hauexek izan dira orainarte: nazioarteko harremangintza, estatuko agente politikoen harremangintza eta herrietako tailerren eraikitzea.

Euskal Herriari dagozkion eskubide politikoen onetsirik, normalizazio politikoa lortzea da Elkarriren helburu nagusia. Arestian aipaturiko hiru arloek berezko garrantzia dutelarik, gaur gaurkotz, eta orainarteko ibilbidea aztertuz, tailer lokalak eginbidea da Elkarri dituen helburuak lortzeko benetako euskarra. Euskarra izan ezazik, Elkarriren mugimenduaren benetako izanak tailerretako lanetan hartzen du bere funtsa. Euskal gizartearen berreraikitza ekin beharrez, gizarte heziketarako tresna modura sortuz joan izan dira tailer hauek herriz herri.

Elkarri eta bere tailerren kokapena eta jardun alorra zeintzu diren ezaguna da denontzat. Tailer hauen metodologia egunik egun garatu doa, eta bere emariak begibistan daude. Sortu zenetik, ezagunak dira Elkarriren jatorria eta helburua.

Lau urteotako ikasbidean gauza bat frogatu izan du Elkarri: dudu-muda guztien gainetik, eta da: funtsari uko egin gabe, forma berriak lantzen saiatzen dela. Alegia, geure herri izaeraren funtsari eutsiz, forma berriak ekarri nahi ditu euskal gizartearen eginbidera. Finean, funtsa eta forma ezinbestekoak baitira Euskal Herriaren izaera bermatuko badugu.

Elkarri esparru politikoen hartutako kokapenean eta bere formatan ezberdintzen da, helburu bera duten euskal alderdi politikoei baino hain zuzen. Baita zentzu honetan, ezberdintzen ere, biolentziaren erabilpena Euskal Herriaren esku-bidien berme eta borroka tresna dela uste dutenekiko. Izanik ere, Elkarri, izan, gizarte mugimendua baita.

Zapatisten helburua, gure helburua

Gogoeta hau burutzen, abuztuak 18an orrialde honetan EZLNko Marcos komandanteordean idatzitako *Gure helburua* izeneko idazkiarekin lotzen dut neurra. Aldeak alde, eta gurekilakoan zapatistek bizi duten egoera soziopolitiko ezberdina izaki ere, Marcosen izpiritua, bai funtsan bai forman, gure herriaren bilakaerako gomendagarria dela irizten dut.

Oso tara mamitsua den artikulua azken partearerkin lotuko dut enea: «Zerbait berri egin nahi izatea, esparru berri batean aritzea, oso mingarria da (...) Zailena da, eta horretan asmatzea lortzen badugu, konponduta dago EZLNen etorkizuna. Eta ez dauka zerikusirik ez armekin, ez eta gerrarekin ere. Erantzun sozial berria da, eta, nire ustez, nazioartean kezkarriagoa izan da armen indarra baino, komunikatuen poesia baino; ideia hau da: posible da zerbait berri egitea, on da horretan ahalegintzea. Ez dugu ezer galdurik».

EZLNren ordez Elkarri ulertu dezagun orain. Guk ere, borroka politikorako esparru bat zabaldu nahi dugu, herritarrek, gehienek partaidetza politikoa izan dezaten. Elkarri ez du ikasle izatetik irakasle izatera pasa behar. Hots, irakaslearen zuzendaritza eta botere rola ez da berea. Ene nahierako, Elkarri oraindik ere, ikasle gisa gaituztu beharko ditu lehen eta bigarren mailako ikasturteak. Unibertsitate garaia iritsirik, hautatu ahal izanen du ikasle edo irakasle gisa aritzea. Ordu-rako, ordea, gizarte akordioa lortua izanen dugula pentsatu nahi dut. Eta orduan erabaki dezala ikasle (gizarte mugimendu bat) edo irakasle (alderdi politiko) gisara aritzea. ■

Jexuxmari Zalakain



Imajinatu...!

Imajinatu Eusko Legebiltzarra gose greban Madril planto egiteko! (...) Zer izango luke eragin handiagoa, horrek edo munduan izen txarra ematen diguten bonba pilo bateko? (...) Zer-gatik mundua asaldatzen duten keinu horiek etorkin batzuek edo preso batzuen senideek bakarrik egin behar dituzte? Zergatik ezin dituzte egin parlamentario batzuek? Zer astinduko litzuzke gehiago irizki publiko estatala eta mundiala eta begirale politikoei?».

Arranopola! Imajinatzea merkea da baina Bergaminek esango zukeenaren arabera, kuriositate bat daukat; kazetari elkarrizketaizalearen aurrean egindako galderak diren erantzunak dira horiek ala erantzunak diren galderak? Lehenengo kasuan, erantzun bat zor digu Garaikoetxeak aukerak ez baitira falta izan horrelakorik egiteko: Konstituzioa ukatu genuenean, NATOren kontra-ko erreferenduma hankartetik pasa zutenean, presoak eta atxilotuak erurririk gabe jipoitzen dituztenean, estatuairen krimenen frogak betirako ezkutaturik uzteko saioa egin dutenean, etab.

Bigarren kasuan, berriz, argi dago: batzuk (etorkinak, presoak eta senideak, adibidez) gai direlako euren helburuen alde bitzita bera arriskuan jartzeko eta beste batzuk (politikoei) ez. Orain arte, bederen. Animo, bada!

Txillardegia



Bi proiektu

Jose Luis Orella nafar historialariak *Egin-en*, joan den Abuztuaren 23an, argitaratu eman duen artikulua mamitsuak («Otra vez ofiarnos contra gamboinos» izenekoak) ondorio onak izango ditu. Gertakariak argitzen lagunduko baitu.

Besteak beste, hau utzi du garbi: euskal politikagintza-ren krisian, ez dugula persona arazo bat ikusi behar; elkarren aurka, oso aspaldidanik, tinko paraturik mamitu diren bi proiektu baizik.

Zuhaitzek ez omen dute oso maiz basoa bera ikusten uzten. Eta gaur ere horretan gaude: euskal politikagintzak eskaintzen digun lotsagarrikeri ilaraz okeginik, gakoa gaitzeko arriskua dago.

Hemen, ordea, eta Orellak oso ongi azaldu duenez, bi proiektu daude.

Bata, espagnolista, errejonalista, Madrilen oneritiaz gizendua eta zabaldua, Nafarroan beaumont-darrek eta Vascongadetako ofiztarrek defenditzen zuten proiektua da. Itxura desberdinetan disimulatuz, baina beti bera. Gaur Arzalluz da proiektu espagnolista horren apostolua.

Bestea, berriz, abertzalea, euskal politika Madrilen kontra egitearen aldekoa. Nafarroan agramont-darrek eta Vascongadetako ganboatarrak defenditzen zuten proiektua da.

Eta arrazoi du Orellak: gaur arte beaumont-ofiztarrek, Madrilen laguntza, nagusi izan dira. Abertzaleok gutxiengoa gara. Ez dago (eta ez da inoiz egon) *mayoria abertzale*-rik. Apostu serio bakarra hau da: ia abertzaleok gauza izango ote garen proiektu abertzalearentzat, Madrilen kontra, eta bertako espagnolista mo-zorroitu guztien kontra, dinamika nagusia lortzeko.

L A P h I T Z A

